

Guide Hear Tech S.L gailuak itsuek edo ikusmen-urritasunak dituzten pertsonak eguneroko mugikortasunean aurre egin behar dieten funtsezko hainbat arazo murriztuko ditu:

#### **1. Nabigazio autonomoa:**

- Nabigazio autonomoaren beharra konpontzen du, jarraibide zehatzak eta denbora errealean ematen baititu itsuei ingurune ezezagunetan modu independentean mugitzeko aukera emateko.

#### **2. Segurtasuna mugikortasunean:**

- Segurtasunaren arazoari heltzen dio, sonarra eta hiru dimentsioko mapaketa bezalako teknologiak erabiltzen baititu oztopoak identifikatzeko eta bidean ager daitezkeen arriskuei buruzko alerta aurreratuak emateko.

#### **3. Inguruneari buruzko informaziorako sarbidea:**

- Inguruneko informazioa eskuratzeko beharra konpontzen du, erabiltzaileei hurbileko interes-puntuak deskribapen zehatzak lortzeko eta planifikatutako ibilbidean izandako aldaketei buruzko eguneratzeak denbora errealean jasotzeko aukera ematen baitie.

#### **4. Interakzio naturala:**

- Ahots-komandoen eta ukipen-keinuen bidez elkarrekintza naturalago baten beharra konpontzen du, erabiltzaileei gailuarekin modu intuitiboan komunikatzeko eta informazio gehigarria jasotzeko aukera emanez, beren lehentasunen arabera.



Gure lehiakideekiko bereiztasun handiena, zalantzarik gabe, berdintzen gaituen beste enpresarik ez egotea da. Horrekin esan nahi duguna da, bastoia bezalako beste aukera batzuk egonda ere, guk eskaintzen dugun aukera bezalakorik eskaintzea zaila dela. Izan ere, gure aparatuek gaur egun merkatuan eskaintzen den teknologia berri guztia dute, eta etengabe eguneratzen dira maila horretan mantentzeko. Bezeroak beti gu aukeratuko gintuela pentsatu izan dugu arrazoi horregatik, hau da, inoiz ere ez ikusitako edo entzundako aparatu bat delako.

Alde batetik, bereizten gaituen ezaugarria kualitatiboa da, gure diseinua, marka eta esperientzia besteak baina aurreratutagoa dagoelako. Gainera, esan dezakegu ezaugarri kuantitatibo positiboak ere dauzkagula, izan ere gure produktuak oso gutxi okupatzen dio aparatu hau behar duen pertsona bakoitzari eta azkartasunez funtzionatzen du, ohiko itsuentzako makilekin konparatuta.



Beste aldetik, prezioa kontuan izanda Guide Hear Tech-ren prezio 175€-koa da, beraz badakigu ez dagoela guztion eskura, ordaindu ezin duen jendea dagoelako. Horregatik saiatzeko gara urtean zehar deskontuak jartzen guztiontzat, hasierako prezioa ordaindu ezin duten pertsona horietan ahalik eta gehien pentsatzen.